

KONTROL MOZIOA,

ORIAKO ITXIAN LEGEZ KANPO UTZITAKO HONDAKINEI BURUZKOA

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2022ko apirilaren 11n Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 30ean Eguzki erakunde ekologistaren bidez jakin genuen Oriako Itxian, Lasarte-Oriako Oria auzotik gertu baina Donostiako udalerrian, legez kanpo utzitako hondakinak ugaritu direla.

Hirugarren aldia da talde ekologistak egoera hau salatzen duena, eremua garbitu ez delako eta gero eta hondakin gehiago pilatzen ari direlako bertan. Lehenengo salaketa 2020ko abuztuan egin zuen eta salaketa bera ekarri genuen batzorde honetara urte bereko abenduan.

Bertan Udal Gobernuak adierazi zuen hondakinak lursail pribatuetan zeudela, eta, ondorioz, jabeei zegokiela garbitzea, eta horiek erretiratzeko, Udalak errekerimendu bat bidali behar ziela. Epe jakin batean errekerimendua betetzen ez bazuten, garbiketa Udalak berak hartu beharko zuen bere gain, modu subsidiarioan.

2021eko abuztuan, berriro ere Eguzkik salatu zuen leku horretan hondakinak legez kanpo utzita zeudela. Salaketa horretan ohararazten zuten, lehenengo aldian salatutako hondakinez gain, beste puntu batean ere hondakinak pilatzen hasiak zirela.

Orain, berriro ere baieztatu dute duela bi urteko leku berean hondakin gehiago pilatu dela, baita iaz salatutako puntu berrian ere.

Honi guztiari buruzko interpelazioa aurkeztu genuen apirilaren 11n egindako batzordeetan. Baina bertan Udal Gobernuko ordezkariak erantzun zigun, martxoaren 30eko salaketaren ondoren, lur-eremua norena den aztertu dutela eta pribatua dela. Beraz, oraindik ere Udal Gobernuak ez du bestelako neurririk hartu.

Hortaz, argi dago, denbora pasatu den arren, ia bi urte, Udal Gobernuak oraindik ez duela eremu hori garbitzeko inongo neurririk hartu, eremuko jabea ez duela identifikatu eta ez duela behartu hondakinak erretiratzeko. Beraz, bertan pilatzen ari den hondakin-kopurua gero eta handiagoa da.

Lotsagarria da udal gobernu honek eremu bat egoera horretan mantentzea ia bi urtez eta bestelako neurririk ez hartzea.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lur-eremuko jabeari legez kanpoko hondakinak erretiratzeko agindua lehenbailehen ematea.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lur-eremuko jabeak emandako agindua betetzen ez badu, isun hertsatzailea jartzea eta, hala ere, emandako agindua beteko ez balu, Udalak subsidiarioki exekutatzeko legeak finkatzen duen prozedura jarraituz.

Donostian, 2022ko apirilaren 22a

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia